

Interes orokorreko xedapenak, **2017ko ekainaren 14tik 17ra** bitarteko aldizkari eta buletinetan (BOE, EHAA, ALHAO, BAO, GAO eta EBAO) argitaratutakoak.

I.- SEKTOREKO HITZARMEN KOLEKTIBOAK:

II.- ARAU-XEDAPENAK:

BOE (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

Eguna: 2017/06/15

- **OGASUNEKO ETA FUNTZIO PUBLIKOKO MINISTERIOA. - ADMINISTRAZIO-PROZEDURAK. KUDEAKETA INFORMATIZATUA.** - Herri Administrazioari buruzko Legearen 2017ko maiatzaren 18ko Ebazpena, erakundearen erregistro elektronikoa sortzen eta arautzen duena. 6769. xedapena -4 or.

Eguna: 2017/06/16

- **OGASUNEKO ETA FUNTZIO PUBLIKOKO MINISTERIOA. - Sozietateen gaineko zerga.** - Ekainaren 15eko HFP/550/2017 Agindua, zeinaren bitartez ondare-prestazioaren autolikidazioko 221 eredua onartzen baita, zerga diferituko aktiboak zerga-administrazioari eskatu dakioken kreditu bihurtzeagatik. 6857. xedapena -6 or.
- **ENPLEGUKO ETA GIZARTE SEGURANTZAKO MINISTERIOA. - DIRU-LAGUNTZAK.** - Gizarte Segurantzaren Estatu Idazkaritzaren 2017ko maiatzaren 29ko Ebazpena, zeinaren bitartez Laneko Arriskuen Prebentzioarako Estatuko Fundazioak emandako diru-laguntzen kontzesioaren oinarri arautzaileak onartzen baitira, lehia-konkurrentziako erregimenean, laneko arriskuen prebentzioaren alorreko jarduerak egiteko, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen arabera. 6887. xedapena -20 or.

Eguna: 2017/06/17

- **EKONOMIA, INDUSTRIA ETA LEHIAKORTASUN MINISTERIOA. - ASEGURU PRIBATUAK.** - Ekainaren 14ko EIC/556/2017 Agindua, zeinaren bitartez aseguru-erakundeek eta berraseguru-erakundeek kaudimeneko erregimen orokor gisa igorri behar dituzten informazio kuantitatiboari buruzko urteroko ereduak onartzen baitira, ondorio estatistikoetarako eta kontabilitate-ondorioetarako; era berean, honakoak onartzen dira: aseguru-erakundeek eta berraseguru-erakundeek kaudimeneko erregimen orokor gisa igorri behar dituzten informazio kuantitatiboko ereduak, gainbegiratzeko, estatistikak egiteko eta kontabilitaterako; aseguru-erakundeek eta berraseguru-erakundeek kaudimeneko erregimen orokor gisa igorri behar dituzten inbertsioei eta heriotzei buruzko informazio kuantitatiboko ereduak, gainbegiratzeko, estatistikak egiteko eta kontabilitaterako; eta aseguru-erakundeek eta berraseguru-erakundeek kaudimeneko erregimen orokor gisa igorri behar dituzten informazio kuantitatiboko ereduak, estatistikak egiteko eta kontabilitaterako. 6899. xedapena -300 or.

Eguna: 2017/06/16

- **OGASUN ETA EKONOMIA SAILA.** - Ekainaren 13ko 168/2017 DEKRETUA, zeinaren bitartez Ogasun eta Ekonomia Sailaren egitura organikoa eta funtzionamendua finkatzen baita. 3014. xedapena
- **LAN ETA JUSTIZIA SAILA.** - Lan eta Justizia Sailburuaren 2017ko ekainaren 6ko AGINDUA, zeinaren bitartez Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Erakundeko Kontseilu Nagusiko kideak eguneratzen baitira. 3033. xedapena

ALHAO (Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofiziala)

Eguna: 2017/06/14

- **FORU ARAUA (OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA).** - Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Diputatuaren ekainaren 1eko 325/2017 Foru Araua, honakoak onartzen dituen: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako, Sozietateen gaineko Zergako eta Egoiliarak ez direnen Errentaren gaineko Zergako konturako diru-sarreraren eta erretentzioen urteroko laburpenerako 188 eredu, establezimendu iraunkorrei dagokiena, bizi-aseguruko edo ezintasun-aseguruko kontratuetatik eta kapitalizazio-eragiketetatik eratorritako kapital higigarriaren errentei edo errendimenduei dagokienez eta zuzenean ordenagailu bidez irakur daitekeen euskarrira egokitu behar diren diseinu fisiko eta logikoei dagokienez. 2268. xedapena – 18 or.
- **FORU ARAUA (OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA).** - Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Diputatuaren ekainaren 1eko 326/2017 Foru Araua, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Diputatuaren martxoaren 9ko 133/2005 Foru Araua aldatzeari buruzkoa, zeinaren bitartez honakoak onartzen baitira: aktibo finantzarioekiko eta beste balio higigarri batzuekiko eragiketen urteroko aitorpenerako 198 eredu, bai eta diseinu fisiko eta logikoak ere, barrualdeko orrien orde zuzenean ordenagailu bidez irakur daitekeen euskarria jarritz. 2275. xedapena – 8 or.

BAO (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

Eguna: 2017/06/16

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** – Ekainaren 6ko 2/2017 FORU DEKRETU ARAUEMAILEA, zeinaren bitartez Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Araua aldatzen baita, jabetza intelektual edo industrialaren ustiapenaren murrizketari dagokionez. 2 or.
- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** – Ogasun eta Finantzen Foru Diputatuaren ekainaren 8ko 1087/2017 FORU AGINDUA, zeinaren bitartez Sozietateen gaineko Zergako eta Egoiliarak ez direnen Errentaren gaineko Zergako (establezimendu egonkorra dutenak eta atzerrian eratutako errenten atribuzio-erregimenean dauden eta Bizkaiko Lurralde Historikoan presentzia duten erakundeak) autolikidaziorako 200 eta 220 ereduak onartzen baitira. Era berean, eredu horiek modu telematikoan aurkezteko prozedura arautzen da, 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako ekitaldietarako. 153 or.

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** - Ogasun eta Finantzen Foru Diputatuaren ekainaren 8ko 108 FORU AGINDUA, zeinaren bitartez ondare-prestazioaren autolikidazioko 221 ereduak onartzen baita, diferituko aktiboak zerga-administrazioari eskatu dakioken kreditu bihurtzeagatik. 5 or.

GAO (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

Eguna: 2017/06/15

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** – Ekainaren 5eko 282/2017 Foru Agindua, zeinaren bitartez 200, 2 eta 22G ereduak onartzen baitira, bai eta horiek aurkeztu eta sartzeko modua, lekua eta epea ere xedapena - 242 or.
- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** - Ekainaren 5eko 283/2017 Foru Agindua, zeinaren bitartez prestazioaren autolikidazioko 221 ereduak onartzen baita, zerga diferituko aktiboak zerga-administrazioari eskatu dakioken kreditu bihurtzeagatik. 4126. xedapena -5 or.

EBAO (Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala)

Kepa Bilbao Zubiaur

Tel.: 94 425 25 15 Faxe: 94 423.22.95

Helbide elektronikoa: informacion.juridica@mutualia.es

.....

**GIZARTE SEGURANTZAREKIN KOLABORATZEN DUEN 2. ZENBAKIKO
MUTUALITATEA
HENAO 26 - 48009 BILBAO**

